

# KOMUNIKAZIO LANABESAK



**2. MAILA | 3. MODULUA**

**2024-2025**

**GRADU BIKOITZA**

eman ta zabal zazu



# Aurkibidea

1. DILANaren kokapena graduan.....	3
2. Egiteko nagusia.....	3
3. Taldeak eta tutoreak .....	3
4. Proiektua .....	4
<b>4.1. Fitxa teknikoa</b> .....	4
<b>4.2. Bideoa</b> .....	4
<b>4.3. Aurkezpena</b> .....	4
5. Landuko diren kompetentziak.....	5
6. Ebaluazioa .....	7
7. Kronograma.....	7
8. Eranskinak .....	9
<b>8.1. Taldearen fitxa</b> .....	9
<b>8.2. Fitxa teknikoa</b> .....	10

## 1. DILANaren kokapena graduan

*Komunikazio Lanabesak* izeneko hirugarren modulua da Gradu Bikoitzean. Modulua bigarren mailako lehen lauhilekoan burutzen da, eta 4 irakasgai hauek osatzen dute:

- Hautzaroaren Psikologia
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena II
- Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan
- Musika Lehen Hezkuntzan

Irakasgai bakoitzak Diziplina Arteko Lanari (DILANari) kreditu bana eskainiko dio. Guztira, lan hau aurrera eramateko bertaratu beharreko 40 ordu izango dira eta beste 60 ordu zuzendutako lanen bitartez eskainiko zaizkio lanari. Hala, DILANak 4 kreditu ECTS izango ditu.

Ikasturte honetan honakoak dira moduluan parte hartuko duten irakasleak:

- Barbara Presa
- Gotzon Ibarretxe
- Miren Artetxe (koordinatzailea)

## 2. Egiteko nagusia

DILAN honetan, ikasleek, taldeka, proiektu bat garatu beharko dute.

Proiektu horren azken emaitza bideo bat osatu eta aurkeztea izango da; "ikus-entzunezko narrazio" bat, hain zuzen.

Ikasle talde bakoitzak taldeak aukeratutako gai baten inguruan gogoetatuko du, gai horren inguruko mezu bat zehaztu, eta mezu hori helarazteko ikus-entzunezko modua diseinatu eta garatu beharko dute.

Bideoa zein bideoaren aurkezpena prestatzeko prozesuan hainbat urrats bete beharko dituzte taldeek, eta hainbat lan ebaluagarri entregatu. Horretarako, modu autonomoan lan egingo duten arren, tutorizazio lanak egingo dituen irakasle bat ere izango dute bidelagun.

## 3. Taldeak eta tutoreak

Lan taldeek honako ezaugarriak izango dituzte:

- Taldeak egonkorak izango dira.
- Taldeak ikasleek beraiek osatuko dituzte.
- Taldeakideen kopurua 4koa edo 5koa izango da.

Talde bakoitzak taldearen fitxa (8.1. Eranskina) bete beharko du eta moduluko koordinatzaile den irakasleari eman **IRAILAREN 23**rako.

Talde bakoitzari **IRAILAREN 30an** lana gidatzeko tutore bat esleituko zaio.

Tutore honen funtzioa proiektua garatzen laguntzea izango da, alde batetik. Horretarako, entregableen feedbackak emango dizkio talde bakoitzari bere tutoreak.

Lanaren azken ebaluazioa ere tutoreak jarriko dio taldeari.

## 4. Proiektua

Bideoa sortzeko prozesuan erabiliko den metodologia Proiektuetan Oinarrituriko Ikaskuntza izango da.

Proiektua bera hiru emangarri edota eginkizun nagusitan banaturik dago: fitxa teknikoa, bideoa eta aurkezpena.

### 4.1. Fitxa teknikoa

Fitxa teknikoaren ezaugarriak honako hauek dira (ikus 8.2. Eranskina):

- Taldeak erabakitako gaiaren inguruan pentsatu ondoren sintesi lan arduratsu bat egin beharko du, eta fitxan zehaztuko ditu bideoaren mezu nagusia zein den.
- Mezu hori helarazteko, fitxa teknikoan bideoa sortzeko erabiliko diren baliabideak zehaztuko dira (musika, irudiak, baliabide teknikoak...).

Tutoreari fitxaren zirriborroa eta ikus-entzunezko narrazioaren hasierako ideien berri emango zaio **URRIAREN 11rako**.

**AZAROAREN 29an**, berriz, behin betiko fitxa teknikoa entregatuko zaio tutoreari.

### 4.2. Bideoa

Bideoaren ezaugarriak honako hauek dira:

- 3-5 minutuko iraupena izango du.
- Ikus-entzunezko narrazioa izango da, baina, hainbat modalitate izan ditzake: monologo, ipuin, kontakizun, ekintza, performance... modura aurkeztua izan daiteke.
- Gaiari dagokionez: hezkuntzara bideratua dagoen mezu bat behar du izan, irakasle rol batetik posizio pedagogiko bat azaltzen duena.

Tutoreari behin behineko bideoa **ABENDUAREN 13** goizerako entregatuko zaio, feedbacka eman ahal izan dezan.

Behin betiko bideoa, aldiz, **ABENDUAREN 18an** igoko da, eta **ABENDUAREN 19an** aurkeztuko da ikaskideen aurrean.

### 4.3. Aurkezpena

Aurkezpenaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Bideoen aurkezpen egunean egingo da, aurrez aurre, eta taldekide guztiek hartuko dute parte aurkezpenean.
- 3-5 minutuko iraupena izango du.
- Bideoa proiektatu ondoren, taldekideek gainerako ikaskideei azaldu beharko diete zertan datzan bideoaren mezuak, zergatik aukeratu duten gai/mezu hori, eta zergatik aukeratu dituzten bidean erabilitako baliabideak mezua helarazteko.
- Bideoaren sorrera prozesuan izandako zailtasunak, erronkak, edo bizipen interesgarriak ere azalduko dira aurkezpenean.
- Ezingo du inprobisatua izan: gidoiak prestatua egon behar du.
- Ezingo da aurkezpena irakurriz egin: ez dela idatzizko euskarririk onartuko.

## 5. Landuko diren kompetentziak

*Komunikazio Lanabesak* izeneko modulua osatzen duten ikasgaiek komunean dituzten arloak honako hauek dira:

- Hezkuntzaren praktikaren inguruan gogoeta egitea
- Ikus-entzunezko Hizkuntza
- Pentsamendu Kritikoa
- Kulturartekotasuna
- Aho eta Idatzizko Hizkuntza

Komunak diren arlo hauek harreman zuzena dute Haur Hezkuntzako bost kompetentzia hauekin: G002, G003, G007, G008 eta G014.

Taula 1. Haur Hezkuntza Graduako Kompetentziak

HAUR HEZKUNTZA GRADUKO ZEHARKAKO KOMPETENTZIAK	
<b>G002</b>	IKASKUNTZA AUTONOMOA ETA INTEGRALA Lehen haurtzaroan ikaskuntza autonomoak eraiki ditzatela sustatu eta erraztea, ezagutzaren, emozioen, psikomotrizitatearen eta borondatearen dimentsio desberdinak oro har bere baitan jaso eta bilduko dituen ikuspegi batetik.
<b>G003</b>	IKASKUNTZA-TESTUINGURUAK ETA DIBERTSITATEA Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua.
<b>G007</b>	JARRERA KRITIKOA IKT-EN AURREAN Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta, bereziki, telebistak lehen haurtzaroan dituzten hezkuntza-ondorioak ezagutzea. Informaziorako eta komunikaziorako hedabide desberdinak modu kritikoan erabiltzea (IKTak, liburutegiak, fonotekak...), ezagutza-iturriak eskuratu ahal izateko eta komunikazio-lanak, ikaskuntza, ikerketa eta lankidetzak bidezko lana sustatzeko.

<b>G008</b>	<p><b>HAURTZAROAN GARAPENA SUSTATZEA</b>                  Haurren dietetika eta higienerari buruzko oinarriak ezagutzea. Neska-mutikoek beren gorputza ezagutu eta kontrolatu dezatela sustatzea, autonomia-ohiturak bultzatuz. Arreta goiztiarraren oinarriak ezagutzea, eta halaber, prozesu psikologikoak, ikaskuntzakoak eta lehen haurtzaroan nortasuna eraikitzeakoak ulertzea ahalbidetzen duten oinarriak eta garapenak ezagutzea, horiek garatu daitezela sustatuz.</p>
<b>G014</b>	<p><b>HAZKUNDE PERTSONALA</b>                  Epealdi honetan neska-mutileen garapen emozionala, soziala eta kognitiboa eta nortasuna ezagutzeko eta sustatzeko gaitasuna izatea.</p>

Eta baita Lehen Hezkuntzako 5 konpetentzia hauekin ere: G03, G08, G10, G11 eta G13.

*Taula 2. Lehen Hezkuntza Gradu Konpetentziak*

<b>LEHEN HEZKUNTZA GRADUKO ZEHARKAKO KONPETENTZIAK</b>	
<b>G03</b>	<p>Kultura anitzeko testuinguruetan eta testuinguru eleanitzetan hizkuntza-ikaskuntzarako egoerei eraginkortasunez aurre egitea. Eskolako curriculumean bildutako zientzia- eta kultura- ezagutza guztien testuak irakurtzeko eta horien iruzkin kritikoa egiteko joera sustatzea.</p>
<b>G08</b>	<p>Harreman kritiko eta autonomo bat edukitzea jakintzei, balioei eta gizarte-erakunde publiko nahiz pribatuei dagokienez.</p>
<b>G10</b>	<p>Ikasgelako praktikei buruzko gogoeta egitea, irakaskuntza-jarduna berritzeko eta hobetzeko. Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzan oinarritutako ikaskuntzarako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea, eta ikasleen artean sustatzea.</p>
<b>G11</b>	<p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgeletan aplikatzea. Ikaskuntza, gizalegezko prestakuntza eta kultura-aberastasuna sustatuko dituen ikus-entzunezko informazioa hautatze bidez bereiztea.</p>
<b>G13</b>	<p>Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten jakitea. Hizkuntza behar bezala ulertzen eta hitz egiten badakiela erakutsi beharko du, hezkuntza-testuinguru eleanitzean bere lanbidea egikaritzeko moduan eta hizkuntza- eta kultura-aniztasunari begira errespetuan oinarritutako jarrerak landuta.</p>

## 6. Ebaluazioa

Diziplina arteko lan honetan parte hartzen duten irakasgai guztiak beraien kalifikazioaren %15 eskainiko diote:

Taula 3. Irakasgaien aportazioa ebaluazioan kreditutan eta kalifikazioan

IRAKASGAIA	KALIFIKAZIOA	KREDITUAK
HAURTZAROAREN PSIKOLOGIA	1,5	1
ZAILTASUNAK GARAPENEAN ETA IKASKUNTZAN	1,5	1
MUSIKA LEHEN HEZKUNTZAN	1,5	1
KOMUNIKAZIO GAITASUNAREN GARAPENA II	1,5	1

DILANren ebaluazio prozeduran hiru elementu hartuko dira nagusiki kontuan: bideoaren fitxa teknikoa, bideoa bera, eta bideoaren aurkezpena.

Taula 4. DILANaren ebaluazio prozedura

ENTREGABLEA	EBALUATZAILEA	NOTA
FITXA TEKNIKOA	Tutorea	0,5
BIDEOA ETA BIDEOAREN AURKEZPENA	Tutorea	1
		<b>DENERA: 1,5</b>

Modulu lana gainditzeko 0,75 puntu edo gehiago lortu beharko du taldeak. Ikasle taldeak modulua gainditzen ez badu, irakasgaien kalifikazioetan ere EZ-GAINDITUA izango du taldeko kide bakoitzak.

Ikasleek, bestalde, moduluan parte hartu ahal izateko 4 irakasgaietatik 2tan ebaluazio jarraia egin beharko dute.

## 7. Kronograma

IRAILA					URRIA					AZAROA										
al	ar	az	og	ol	lr	ig	al	ar	az	og	ol	lr	ig	al	ar	az	og	ol	lr	ig
							1	2	3	4	5	6					1	2	3	
							7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10

9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20	11	13	13	14	15	16	17
16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	
30																				

### ABENDUA

al	ar	az	og	ol	lr	ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22

#### Data garrantzitsuak:

Talde fitxa entregatu	<b>Irailak 23</b>
Tutore esleipena	<b>Irailak 30</b>
Tutoreari fitxa teknikoaren zirriborroa entregatu	<b>Urriak 11</b>
Praktikaldia	<b>Urriak 14-Azaroak 15</b>
Tutoreak fitxa teknikoaren zirriborroaren feedbacka	<b>Azaroak 22</b>
Tutoreari behin betiko fitxa teknikoa entregatu	<b>Azaroak 29</b>
Tutoreari behin behineko bideoa entregatu	<b>Abenduak 13 goizerako</b>
Behin betiko bideoaren esteka igo	<b>Abenduak 18rako</b>
Aurkezpenak	<b>Abenduak 19</b>



## 8. Eranskinak

### 8.1. Taldearen fitxa

<small>OHARRA: ERANSKINAK GARRANTZITSUAK DIRA</small>	EKIPOAREN E-MAIL BAT: EKIPOAREN TELEFONO BAT: EKIPOAREN IZENA (aukerazkoa):
DIZIPLINARTEKO PROIEKTUA/LANA:  (*Alfabetikoki izen-abizenak)	
<b>Argazkia</b>	IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:
IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:	<b>Argazkia</b>
<b>Argazkia</b>	IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:
IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:	<b>Argazkia</b>
<b>Argazkia</b>	IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA:  9

## 8.2. Fitxa teknikoa

**TALDEKIDEEN IZENAK:** \_\_\_\_\_

**BIDEOAREN IZENBURUA:** \_\_\_\_\_

**BIDEOAREN GAIA:**

**BIDEOAREN MEZU NAGUSIA:**

**BIDEO-MODALITATEA:** \_\_\_\_\_

[Monologia, Slow motion bideoa, antzerkia, animazio-bideoa...]

**NARRAZIOAREN NONDIK NORAKOAK:**

[Zer montatuko da?]

**BIDEOAN ERABILIKO DIREN BALIABIDEAK:**

[Ze musika? Ze soinu? Ze ahots? Ze testu? Ze irudi?]

**BIDEOA SORTZEKO BALIABIDEAK:**

[Nola grabatuko/lortuko dituzue irudiak? Zein tresnarekin? Behar ote duzue materialik irudien grabaketarako? Zein musika/soinu erabiliko duzue? Zuek sortutakoa izango al da? Nola editatuko duzue bideoa?]